Maitasun-ikastola

Nere onek argitara irten orduko irakur leak Elis Amarekin ospatu du Josu Biotzaren egun aundia, gogoa asmo ta yoran deunez igitu, ta biotza maitasun garbi gozoten goi-gorantz jasotzen diguten jai samurez. E txe-legoetako apainki margo bizi dunak uriai ematen dioten itxura alayak, eliz edo txadonara gamazkiten joalien suñu berituxu pozkariak, txadon baruan arkitzen degun edertasun liluragariak, gure Gaizkalearen Biotz maitea irazekia aintzaldu nairik dagigun guzi-guziak, egun ortan, maite-eguna bezela, ordeñez dakar gure biotzetara Jaunak, beretzat artzean demayon apa jainkotiaren bero osasungaria, ta bene-benetan nabaitzen degu gure baruan, oraindaño ez bezelako zindotasunaz aurera jarraitzeko nai bizia.

Josu-Biotz Jainkozkoak kardaberaz B.'ren bidez auren-xamar nai izan giñuzen euzkotarak bere zale egin; eta ez da txikia orain ere dagigun eskar berezia, onenbest aundikeri, arokeri ta lizunkeriren aize-eraso-pean asaben zinizmena sintzo gorde al-izateko sendotasuna ain oparo demaigunean.

Begitze txiki bat asko da, bizitz obeegoren itxaropen gabe, beren ustea emengoan bakarik jarita, bertoko ukeak jasan eziñik beste luralde arotz askok ageri duten zoritzara. Ez da ba, zoriona nai, ta berau nun dan ez dakienaren zoritxara baño aundiagorik.

Ludi ontan ez da baña zorion osorik-eta euzkotarenak ere, geure Aberia arotzaren lokari kaltegariz lotua izatearen akatza du, beste akatz geyagoren artean. Akatz mingarria benetan, batez ere sorion-oñarria degun Jausi-zinizmen ori galzorian jartzen digunez, geure azkatasun eta gizaki zeingiak kenduaz gañera. Ezin ba Aberi-Amayerentzat maitasun txingartxo bat biotzian daraman seme-alabak, zoritxar au mindu gabe nabaitu, ta Goikoari eskerak, eruz ditu Euzkadi'k min onek igituta, JEL ikuritzaren menpean, aldezle leiki zaizkion ak.

Beko maitasunetan goituena ta geyen beartzen gaituna bada aberi-maitasuna; baña Goikoaren menpean eta Alderdi-irakaskintzari lotuta gizartean on aundiak ba-dagizki ere, emengo maitasun orok bezela, zalekerira bidea zabal dauka-ta, gogaiki bezela zuzen eta donea dana maitasun bezela bakoitz aren kaltegari leike. Goiko-Jaunzko beretzat gorcetzekotan eman zigun biotz au, beko arduraz lotuta goruntz egatzea galerazo leikeiko; ama bateri bere semeaganako maitasun geyegiak ori bera, leikioa bezela, ta semeari amaganako maitasun geyegiak baita.

7 bait gatik Jaunak zesan: "Nigana urbait ba'datof, ta bere aita, ama, emaztea, seme-alabak, eta anai-arebak, baita bere burua ere, iguintzen ez ba'ditu, ezin izan diteke nere ikasle". Berdin Aberiaz ere, orain aldian ain urduri gauzka aberi-maitasunaz ere.

Baña maitasun-ikastolatzat gure Josu maiteak bere Botz Jaungoikozkoa iriki digu-ta, berton sartzen ba'gera, gure maitasunak zuzen erabiltzen ikastea eskiera degu.

Ez gera Biotz Jaungoikoa'ko oretaz zaletu al izango benetan beintzat, geure burcari-uko-egiten ikasten ez ba degu, ba norbere-uko gabeko Jaun-zaletasuna irudimen utzezkoa da.

Ez da Josu-kisto gure Jaunak, aberi ta sendiaganako gure bete-bearak kendu nai dizkigulako, Berak ezartzen dizkigu ba bete-bear geyago-ta; bai baña naitasun geyegiak garamazkin itxumen kaltegariak dira kentzen dizkigunak, azkeago beretzat izan gaitezen.

¡Zenbat aldiz bakoitza ez gaitun itxutzen berez zuzen-zuzena dan gure maitasunak, biziegi dalako, erori-arazi arte! ¡Zenbat aldiz geurekoikeriak ez digun gogo-gentza lapurtzen! ¡Zenbat unetan maitasun zindotzat daukaguna zalekin makar biurtzen ez dan gure biotzian, biotz au Josu-renari lotua eukitzen ez dakigulako! Eta onetako izakeraz ona baño opa ez digunari kaltia eartzen diogu; aberiakiko beintzat, bakoitzat degi ba onen izakera-ta.

Ez gera aberitzale on, geure onoimenex opari osasungaria aberiari eman-al ez diogun bitartean; gure maitasuna Josu'ren Biotz Jaungoiko'koaren su-garez piztua ez dan bitartean. Bera da ba gure elburua-ta.

Ekin deyagun ba bakoitzat-bakoitzaren gandik, egunoroko arazoetan gel-aldi bat egin, eta gogoz Josu "Biotz barura sartuaz. Berau da guk bear degun lokia, baldin beintzat gure onoimenen ondoreaz aberia ondu nai ba'degu, ba berau ondu dedin edo onian iraun dezan, gure-buru-eskeñ ia bearéko du, maitasunak arazten zduan buru-eskeñi-osoa. Aberiak bear duana Josu Biotzak irakatsi nai diguna.

TENE.

ERMUA'KO JAI ABERKOYAK DIRALA-TA

Ermua'ko aberitzaliai malasunez.

Egun aundija dozube bijar zuben Batzoki ta E.-A.-B.'ren ikurin onespena dala bide.

Osotu dozuben egitaraba aurian dot.

Aberitzaletasuna darijon iturritxuba dirudi.

Egun aberkoya atondu dozube ta egun alaituba ixango dozube, egun pozgarija. Ancika abertzaliak ikertuko zatube pozkiroz.

Jai aberkoyak beren muñetan berezko poztasuna eruan oi-dabela esan dau norbaiek. Eta egija da.

Jeltzaliak ospatu oi-dabezan jai gustijak alako gauza berezija ixaten dabe. Alaitasuna. Beste iñoren jayetan ikusten eztan pozezko alaitasun baketsuba.

Gabon gabian, urte gustijan saka-banatuta ibili diran anai-areba gustijak etxeratu diran sendijan nabaitzen dan alaitasuna eta maitasuna arnasatuten da gure jai aberkoyetan. ¡Kaxo urlija! ¿Zer bari berendija? ¡Ortik bosteko estutzia! ¡Emetik besarkadia! ¡Arantzago begitada goxoa! ¡Onantzago agurketa samura! ¡Abestija ortik! ¡santsua emetik! ¡nabarmenkeri baga jolastuazoten daun txistu-entzungarija nai nundi!, eta ¡anaitasuna, bakia ta gentza alde gustijetatik! Euzkadi amatzat ezagutu daroen anai arteko berdin-bako anaitasuna.

Orixe-da jeltzalien jai gustijetan, beste gauza gustijen ganetik urtetan dan ixakeria, geure arerijuak-be baten baño zarijagotan autortu daben eta afituten dauzan doe berezija.

Eta entzute ona ta lotsa-onai dagokijon aldeti, gure jayetara elduten dan lako gixosterik ez. Orastuge ta ugara darijolako bada-ezpadako emakumarik, ezta ikusiko gure jayetan ¡ez orixe!, gure emakumiak beartsubenak ba-dira-be euren jantzi apa'akaz ¡ori bai! baña garbi ta argijakaz ixango dira euren masala gori ta espaneta-o iri-baretxu bigunaz, eta gixaseniok bezin Euzkadi'ganako maitasun senduaz ganera.

Eta emakumiak bere maitasunagaz lortu ez daun gauzarik eztala, ¿zelan alikatu ez geure aberitzale gogua itxaropen sendo ta aundijaz, emakumiak aberija maita dabiela dakigunean? ¡Bejon dagixubela, itxaropen ori opaldu ta geure jayak ederagotu ta alaijagotuten dauzkuzubezan aberi-alabok! ¡Aintza zeuboi!

Euzko-aberitzale jayak beti oder ixan badira, aspaldijon osatzen diran jayak len ixaten ezeben une kementsu ta aundigari batek ederagotuten dauz. Mendigoxalien eldukeriak. Bijotzak sutituten dauzan Mendigoxale bulartsuben eldukeriak. ¡A, ze poza emon oi-daben mendi-ziar azija zabaltzen zaildu ostian euren ikurin doneak aurian dakarezala ta euren makila senduak eskuban dabezala oinkada ziuragaz uriko txaidiak ziar agertzen diranian!

¿Nor geldidu mendigoxaliak agurtu baga? ¿nor euren zintzotasuna txalotu baga? ¿nor osasuna darijon euzkotar gastedi'a ikusi baga? ¿nor azkatasuna besartian dakaren euzko guda-mutilak goraldu baga? ¿nor? Iñor ez. Mendigoxalien oski-otsa entzun daieneko arin igituten da edonor eurak ikusi, eurak agurtu ta eurak txalotubaz gogua berorotuten dauskuben, eta bijotzak sutituazoten dauskubezan euzko gudamutilai afera maiekora opalduten.

Zubek Ermua'ko aberitzaliok-be, bijar, igituko zarie, aberijaren kirijuak diran mendigoxale gastedijai bijotzetako besarkada samura opalduteko lenengo, eta alde gustijetatik elduko yatsubezan euzko aberitzale zintzuai geruago.

Eta gustijok besarkada baten alkarturik, egun aundi bat opaldubaz aintzalduko dozube aberija, euzko aberitzaliak bakarik dagijen lez, anaitasuna, maitasuna, gentza, poza ta atsegiña eruanaz Ermua'ko zokondo gustijetara.

¡Ermua'ko aberitzaliak, bijar egun aundija dozube! Zuben pozari neuria ezarijaz, bijotzez agurtzen zaitubet.

Aurera ta ¡Gora Euzkadi!

ABELETXE.

En Begoña

Atracada en pleno día por dos individuos

A las ocho y media de la mañana de ayer, cuando se dirigía por la estrada del depósito de aguas de Santo Domingo hacia Bilbao, la aldeana de cuarenta y nueve años doña Cristina Bilbao Zarraga, natural de Zamudio y domiciliada en la carretera de Santo Domingo, 6, primero, se abalanzaron sobre ella dos individuos que se hallaban apostados en la citada estrada, y le arrebataron violentamente 128 pesetas que destinaba a efectuar unos pagos en la villa, de unos piensos para el ganado.

El dinero lo llevaba en un billete de 25 pesetas, 20 monedas de cinco y tres pesetas sueltas.

Después de cometido el atraco, los ladrones se dieron a la fuga, dejando a la aldeana desvanecida contra una pared, límite de la calzada.

La atracada, a preguntas de la Policía, facilitó las señas de los audaces ladrones, manifestando que su vestimenta se componía de pantalones de dril, llamados de "mil rayas", y americanas obscuras.

Sospecha que uno de ellos sea Cecilio Bengoa, antiguo criado de uno de los caseríos cercanos, natural de Otxandiano y sujeto de malos antecedentes, pues ya anteriormente pretendió robar en un caserío del lugar denominado Kamiruaga.

Afirma su criterio en este sentido, porque, a su juicio, es la única persona que se hallaba en antecedentes de que Cristina Bilbao Zarraga había de realizar pagos en aquella mañana.

Dicha señora fué asistida en un caserío cercano, pues padecía fuerte excitación nerviosa. Trasladada a su domicilio, quedó encamada, víctima de la impresión

La Policía municipal y los miñones de Begoña practican diligentes gestiones para dar con el paradero de los atracadores.

Semillas forrajeras

Unico importador de la remolacha forrajera Original v. von Borries Eckendorf, alfalfa, trébol, maíz blanco caragua y toda clase de semillas forrajeras.

PABLO BILBAO, Almacén de cereales

Sonnera, 6. Teléfono, 14.438. BILBAO

ETXE TA LURR SALDU-EROSTIA

Etxien-gain diru arrtu-emotia

INTXAURRAGA'tarr P.

Bilbao-Bailen, 3-2'g. 11.685 urrutirik

Barriola'tar I. M.

Gaixotegi'ko sendagillea urdail - gibel - este

GARIBAI, 20, 2'g. — DONOSTIA

Uribe'ren Jostolea

Alkondara eta enparauko gixon-janzkiyak

Loyola-kalea'n 3'garren zen bakiyat

DONOSTIA'N.

ERNANDORENA

ORTZIARI (DENTISTA)

ARRIM-KALEAN, 31, 2.°. — DONOSTIA.

ALDE GUSTIJETAKO IZPARRAK

BILBAO

Algorta'ko zauri-etxian lenengo osaketea egin dautsen zauritubak, onexek dira: Martínez Juli bederatzi urteko mutikua; Ormaetxea'tar Lonerta, 65 urtekua; eta Ortiz'tar Karmele iru urtekua. Lenengo osatutze au egin ondoren bakotxa bere etxietara juan ziran.

Zauritubok iñok barik berez zauritubak ixan dira.

BUSTI-ALDIJAK

Udalak emen dauzan busti-lekubak ila onen amaretik busti gura daben gustijentzat zabalik ixango dira. Beraz etxietan busti-lekurik eztogun txiruak be ila onen 10'etik asiña busti-aldi batzuk nun artu ixango dogu.

ARAUDI-ZABALKUNDIA

Zabalkunde au egiteko arduradunak diñuenez, araudi-zabalkundia egiten geratu barik diñardube.

Idazkun begiragarizko iragarkijak Euzkadi'ko basterr gustijetara zabalduteko gertau dabez, begiratuten dautsenaz batera gelduta itxiko dabezan iragarki ederak.

Eta iragarkijok baño Araudija'ren mamiña gurago dabenentzat, Araudija bera baldintzetako atal gustijakaz irariña zabalduko dabe.

Au gitxi ba'litza, Araudijatzaz bakarik idatziriko izpaingijak astian biritan urtengo dau, Euzkadi-ziar zabaltzeko. Izpaingi onetan euzkerazko idazlanak be agertuko dira.

Zabalkunde-ardura au daukenak Euzkadi'ko eriketa mueta gustijetako alderidijai laguntza-eskeko dei anaikor bat egiten dautse, Araudijau euzkotar orontzako ona baño obia dan Araudija dalako.

Bizkaya'n ezeze, Gipuzkoa'n, Araba'n eta Nabara'n be zabalkunde-lanak aurera duaz, eta lantegi onetan sendi bat, ata-ama batzuben seme-alabak ba'gintzazan etxeko opilari suba egiteko batuko garala dirudi.

Euzkadi'ren seme-alaba gustijak danon artian jango dogun opila egiteko azi-eraten solo bateratutia bai ixango dala benetako anayak ixatia.

Alan ixan dedila, ba.

MADRID

Companys jaunaren itzak-bide, izpafkarijak susmau dabe Catalunya'ko aldunak batzartu zirala areñeguko Aldun-Batzaréko gora-bera-ostian. Rahola jaunaren gogaiz, españarak eztabe ontzat-artzen Lateríjaren azkatasuna baño, erkijak eta luraldiak ezerez bai 'liran. Maura'ren itzaldi, Araudi-ala barik, Azaña-ala ixan da. Ayguade jaunaren ustez eurek eztabe tautik esango Araudijatzazko eztabaida nausijan Azaña daukoelako euren ordezko.

Bello'ren ustez Araudijaren aurka jagi ziranak, ezeben bide-onera jo. Lerroux jaunaren itzaldijak agertubazoko dauz gora-bera geyenak.

IZPARINGIJAK

"El Liberal" izpaingijaren arauz, Araudija ontzat-artu bear da, geure atal bakotxean gauza arteztuteko. "El Socialista,,'ren gogaiz Osalari-Batza'n eta Latari-Batza'n eskumatarak lortu dabezan gurendeak garantzi andija daukoe. Erkaldarak ez ei-dagoz bear dan itzarik.

"El Debate,,'ren leroetan araudijaganako amorua ikusten da. Azaña jauna Ezquerra deritxon alderdikoakaz ei-dabil.

"El Imparcial,,'ek diñuanez erijaren otsak eldu dira aldun-batzarerañó be ta jaun argijenak asi dra araudijaren aurka.

TENERIFE

Kai-langilien opofketa ezta oindiño arteztu. Kaira eldu diran ixontzijak zamakaz aldendu dira. Jauralarijaren aldera jo dabe geyenak eta lasterr zuzenduko dabe arlo au.

PARIS

Gorguloff'tzazko epai-arazuak amaitu edo-dira. Osalarijak ontzat-artu dabezan erabakijak adirazo dautsoez gaizkiñari. Gorguloff jaunak auxe erantzun eutsoen: Erijotza atsegin yat, baña ludijak ulertu dagijala, orokerijagandik gaizkatu nai-ixan dodazala gustijak".

BARCELONA

Macia jaunarengana eldukerea egin dabe izparkarijak, bere asmua jakin nai dabelako Araudijetzazko ezta-baidatzaz. Txarean-barik onean egualа azaldu eutsoen, berak itzai baño egitia ziñismen geyago emon eutsoela baño. Atal bakotxa jardukiten asten diranian, gauzak argituko ei-dira.

Barcelona'ko endoretzia utzi ebalako Ayguade jaunak, onetzaz be itandu eutsoen. Astelenean bariro bere kixa edo ardurea lepalduko daula erantzun eutsoen.

T. S. H.

AUDICIONES INTERESANTES PARA HOY, 4 DE JUNIO

Conciertos vocales e instrumentales

A las cinco.—Bruselas, número 2, 338 m. Orquesta de la estación.

A las cinco.—Radio Suisse Romande, 403 m. Festival de música suiza.

A las siete cuarenta y cinco.—Bucarest, 394 m. Música rumana.

A las siete cincuenta.—Estocolmo, 436 m. Banda militar.

A las ocho. — Bruselas, número uno, 509 m. Orquesta de la estación.

A las ocho.—Suiza-Alemana, 459 m Música suiza.

A las nueve.—Budapest, 550 m. Banda militar.

A las nueve.—Praga, 488 m.

A las diez y veinte, Leipzig, 250 m. Castillo Belvedere. Weimar.

A las diez cuarenta y cinco.—Langenberg, 473 m. Concierto "Late".

Operas y operetas

A las siete.—Berlín, 419 m. "Vísperas sicilianas" (Verdi).

A las ocho. — Bruselas, número dos, 338 m. "Kuokkelbeen".

A las ocho y media.—Estrasburgo, 345. "El gran Mogol" (Andran).

A las ocho cuarenta y cinco.—Roma, 441 m. "I Puritani" (Bellini).

Recitales

A las diez y diez.—Varsacra, 1.411 m. Chopin.

EUZKO EMAKUMEAREN ELBURUBA

I

Neure lenengo idazkijan, E. A.-B.'ren zeregiñik gurenena gafantzitsubena ta onuratsubena, "euzko-amak" egitia zan esan ne ban; gauf, euzko-ama aberitzalia ixateko ze regin-biar dala atatzen noya.

Oñari bako etxiak ezin iraun dau zutik; lenengo axe-bultzadiak luf-jo-azoko dautso, gixonak, be elbururik ezpa-dauko ezin iraun, dan gixontasunian, luf-jo biar dau; etxiarentzat oñarija dana, berauxe da gixonarentzat elburuba alderantzira oñari sendo, eustazpi erime, sustrai sakonak daukazan etxiak, axe, ekaitz eta aldijaren burruka gustijak gotu ta buruba aro agertzen dau; elburudun gixonak be, bijotza elburubak emoten dautsan matasun-garez adoretu, adimena elburubaren argi zerutarez biztu, begi bijak elburubaren argi zerutarez biztu, begi bijak elburubaren edertasun garbijan josi... ta nai gexuak bere min atsekabetsuz jo, nai ezpiar negargarijak ukutu, nai zoritxarak bere magalpe otzian batu, nai txirotasun biarsubak, bere itzalpian sartu, gixontasuna sutik atarako dau. Eztago ludijon "elburudun gixonari" luf-jo—azoko dautsan zoritxarik; zorijontsubak eurok!

Erijotzik mintsubenak, adorez ta kemenez eruateko nun ikasi eben ainbat eta ainbat neska gastek ta indargek. Ludi onetako zorijontasun atsegintasun, ta gozo gustijak ostikopetu, naigabez, atsekabez ta oñazez egiñiko gurutz-sendua besarkatzeko adorea nun edan eben ainbat nezkutz bigunek? Elburubaren itufi garbijan. Elburubaren-bular ugarijak bere matiari emoten dautsen edari indartsuba orixe da: kemen-ardaua.

II

Ona emen E. A.-B. bere bazkidiai bijotzian josi biar dautsen ederkija: Euzko-Elburuba. Geure aizten, bijotzak elburubaren pitxiz, elburubaren urez, elburubaren matasunez, elburubaren atsegintasun garbiz asetuten ba-doguz... Euzkadi azke da, Euzkadi geure-geuria da.

Sakon eta sustraiz ezagutu eban Sabin geure Irakasle nagusijak egi au, Euzkadi'k bere azkatasuna lortu egijantzat, euzkotarok, "eta nañoz" geure asaben odol zararen goritasuna agertu egijagun "Gu Euzkadi'rentzat eta Euzkadi Jaun-Goikua'rentzat" elburutzat imiñiaz, jazo eban "Euzko-Alderdi-Jeltzalia".

Sabin gure Irakasle matagari ta matati jak, elburudun gixona zalako bere bixi labureko une gustijetan adorez, kemenez, jaun-sunez edertuta agertu eban buruba. Elburuba'ren matasunaz garetan imiñi eban bere bijotz aundija eta su gartzu ori amatetako ez espetxia, ez ikusi eziña, ez ixeka, ez sorotzat jaurtzia ixan-ziran naikua. ¡Ze irakaskija, ene emakume aberkidio!

III

Emakume-artian euzko-aberitzaletasuna biztubaz doya, zorijonez; baña pizkunde ori putzezkua ixan ez dagitan, pizkunde ori bijotzez mate daigun, pizkunde ori egitez indara emon dagijogun, elburudun emakumiak ixaten ikasi biar dogu eta batez-bere euzko-ameak, elburudun ameai ixaten irakatsi biar dautsegu, elburudun-ameak diran-artian elburudun semiak ixango diralako ta Euzkadi azkatzeko Sabin geure Irakasliak ezari euskun elburubaren didafai zintzoro erantzutia baño beste biderik eztagolako

MATE.

ERRIJETATIK

MUXIKA

JOSU'REN JAURESKUNDIA ARIATZA'N.—Igazi dan igandian ofila 22'an Sardui'tar Urepin jeltzaliaren 26'garen urte urena zala-ta "Zubikoa", bere etxian, ospatu zan Josu Biotz Deunaren Jaureskundia; amaretako jaupa nagusi ondoren Urepin gixon gastiaren alde bijetako guraso, anai-areba eta auzokidiak bertan zirararik, Sardui'tar Bitor, Portugalete'ko txaunburu-lagun jaupari zintzuak, egin eban jaurezkundia; Sardui'tar Bitorin arotz gastiak aureztik gertaurik eukan bakaulki txukun egokira Urepiñ'ek Josu-Irudi Onestuba eroyalarik asita, euzkel-abesti samurak abestu ziran, Josu'ri Euzkadi'ren zorijona eskatzen geuntsala.

Zorijonekuak Josu'ren Bijotza egiz gurtuten dabenak Jaureskunde ondoren egunari jagokon bazkari gozua egin eben sendikuak alkarekin.

Eskar gustijen iturburuba
Zorun gustijen baratza,
Egija da-ta egijan aldez
Gogua jaso gorantza.
Egija beti egi dalarik
Egija bera zuzentza;
Zuzentza geugaz ibili dedin...
Gurtu Josu'ren Bijotza.

PELO MARI.

MARKINA

ELIZKIXUNAK.—Igazi dan igandian ospetasunik aundijenaz egin ebezan emengo Miren'en alabeak euren urteko jaiko elizkixunak, eta ederak benetan.

Goxian seiretan, saspiretan eta zortziretan Jaunartze orokarak amairik bakuak, eta aratsaldian be elizkixun edera ibildunagaz. Oar-Arteta'tar jaupari agurgarijak egin eban txonitza berak egin oi-daun lez.

Josu-Bijotza'ren bederatziurena ertxalonan egiten da, ta amaya emongo yako iruren bategaz. Iru egun oreitan josulaun batek egingo dauz txonitzak. Eta onan gertauta, Josu-Bijotza'ren eguna andiro ospatuko da.

PELOTA TXAPELKETEA.—Igandian be garale urten ziran gure batzokiko pelotarijak. Eguberdijan jakin zan bari ori, ta iñok be ezeban ziñistu gura. Poz-pozez gagoz, ta batez be gure mutilok, ba sari bat atara gura eben Sabin'en irudijan azpijan jarteko, berari opatubagaz, ta loftu dabe-ta. ¡Aurera, mutilak, ia lenengo sarija loftzen dozuben! Neure zorijona bijori, ta zuben ata lez zubek zaintzen dabilan Barenetxea'tar Anastasi'ri be bai.

ESKERAK.—Bai, ta ugarijak olan be, emakumion ikuriñaren makilia (txeiguan egon biar dabena) barik egin dauskun mutil gastiari, bata geure aretuan, idaznari gañian egon biar daben "argi-mutila" egin dauskunari be. Eskerik asko, mutilak.

ANTZEZKI JAYA.—Igaro dan igandian antzezki jai bat ixan dogu batzokijan. "Iziartxo" antzeztu zan eta gustiz ederto ¡Bai txalo ugarijak irabazi be gero!

Antzezlarijok onexek ixan ziran: Ugarte'tar Mikele "Andre Joxepa"; Aginaga'tar Miren Kasilde, "Iziartxo"; "Zelaya'tar Jon,, "Mikel"; Poruria'tar Laurentzi "Xabiertxo"; Aginaga'tar Jokin, "Apaiz jauna"; Loyola'tar Jon, "Gorgonio"; Ugartetxea'tar Jon, "Patxi" ta Aretxabaleta'tar Joseba "Mutil bat".

AUREGUNETAN. — Gure Batzoki ta E. A.-B.'ko batzordiok gogoz diardube datoren iganderako euren jayok gertetan. Jai ikusgarijak ixango dira ¿bai? eta, irakurle matia, egun ortan gura ta ez. Markiña ra etori biarko zara. Batak au ta bestiak ori bakotxak bere lanari gogoz ekiten dautse gau ta egun. Gure batzokija, txikitxubago ba'litz, erlauntz bat dala esan leike. Bata sartu, bestia urten... eta danak lanian.

Atzo ikusi neuzan lau emakume zintzo euren aretua txukuntzen. Euren ixenak idazkur-ontzijan izten dodaz, gaur beintzat.

Gertakixun onek ikusiko ba'zenduz, ene irakurle, gogo barik be datoren igandian, ilaren 5'kn. Markiña'ra etoriko zintzakez egun alai ta zorijontsu bat igarotera. Etori ba, ta etxatzu garbatuko. Iganderarte, ba, ¿e?

ITZALDIJA.—¡Ene! Neure arapaladau, (alantxe diardut idazten) ija-ija aztu yat esatia igandeko antzezkixunian, atal batetik bestera bitartian neskatila gastetxu batek, Arárte'tar Mirentxu'k, itzaldi aberkoi-aberkoi bat egin ebala, ¡Baña zelan gero! Miren: ¿nundik atara dozuz indar orek? ¡Gora zeu!

ERESKIN BARIJA. — Eta edertsuba alan be ekari dabe gure gixonok batzokira. Keyak atara eragin eutsizan igandeko autzezkixun bitartian Durade'tar Pantzeska ta Gabilondo'tar Emili'k. ¡Ederto!

ETE.

Uara.—Biteri juango da igandian.—L.

ZAMUDIO

GEXORIK.—Egunokaz ogeratuta aurkituten da eriko selatari-ordeko dan Landeta'tar Augustin. Bata bere gexorik dago Ormaetxea'tar Joseba "Mendiko-zara basetxeko gixon-zara be.

Arin osatutia opa dautzoet.

MUNGIA'RA.—Igazi'ko ila onen 15'gn. egunian egin ziran euzko jai andijetara notin gitxi bildu zan eri ontatik, eguraldi txara be bai-eguan, eta bestetik erijan euki genduzan urteroko jayak.

ERANDIO'RA.—Josu Gorputza'ren egunian ainbat gaste ixan giñian eri oitako eromerira juan giñianak. Bidian aurkitu genduzan ainbat itxu, eren eta besobako, txindi-eske andik igaroten ziran gustijai. Poz-pozik emon geuntzon bertan aurkituten zan euzkeldun bateri, geure anaya zan-ta... ¿nori ez bigundu bijotza anai bat onan ikustian?

EZPATADANTZA.—Igaro dan ila'ren 29'gn. egin zan Sondika'ko Batzokian, Txori-Eri'ko ezpatadantzarijan batzara. Batzar oretara juan ziran eri onetatik bere. An ikusizanez ezpatadantzari aldra asko ixango dira Iñaki Deuna'ren egunian, Txori-Eri'tik yuango diranak. Egun zoriontsu oretan eri ontatik bere iru aldra ixango dira "Ibayondo" zelairatuko diranak.

ARDURADUNARI. — Aspaldijon eriko gabeukatza bere, esan leike atzekoz aurera, soratuta-edo dabilala. Beti dago lotuta edo guzurezko ordubetan. Tramalkulubak uratuta dauko-ala ¿arduradunaren alpertasuna gatik ete-da?

ELEIZKIXUNAK. — Josu-Gorputza'ren eguna oso ederto ospatu dogu eri onetan. Amaretan ixan zan jaupa nagosija ibilkunde ta gusti. Ibilkunde-deun oretara eldu ziran eriko ezpatadantzari txikiak txistu-ta gusti, onan erakutzirik euzkotaran kistartasuna.

TXIMISTA BAT.

Uara.—Zeure idaztijak txarto dagozanentz, bilduf-ete? Ez. Euzkeraz idazten ba-dakixu ta tamala ixango litzake alde betera utziko ba'zeunke. Erderaz-barik ezkeraz idatzi biar-dozu.—L.

LEKEITIO

JAYO DA.—Kaxio, Katan, eta ikusi dok jayoparija-edo?

—Zer dok ikusteku ori? Ez nok, etxuat ikusi.

—Ba, Eskolape-ziar juaten ba aiz juan, au ikusi ta irakuriko dok txeigo baten dagon eretuluak diñuana. Ta bata ikuriña ipindeko-edo, dagon taketa be. "Agrupaciln Republicana" yok bere ixena jayoparí orek eta taket ori ain zuzen be, bakaldaren Círculo'an eguan ber-bera ei-dok, entzun yuadanez. Langa oren bitartez oñez ibilden ikasiko yok edo, ba, ze ozegatik, eregalau yentzat il zuan "Círculo jaimista-tradicionalista-upe-tradicionalista" bixitzan eretxonak.

—Beraz, norabuenan gaya-gozak gu, kabernikola gaxuok, oreik ango egualdeko basurden kumatxubok ekariko yauskubek ba, iñoiz emen ezagutu, eztan lako aurerapen eta demokrazija. Ontxe-edo, zorijon jaube ixan biar yuaguk, eztok?

—Bai-edo. Olan ba'dok eztok gustiz txarto be. Gañera, oreik agertuko yauskubek argi-argi nortzuk diran eurek: aurerapen zalenik gogorenak. ¡Ba-yagok biar ixana be. Katan, ia ezagututen ba'yuaguzok gixonok bein-edo-bein!

—Egi-egija ori. Orduban, ¡amaika belari agertukozak ori dala-ta beste barik! Ur askotan ibilden diran arañentzat ¡a zelako aukeria! Bixi bedi, ba, il arte, jayoparí ori.

MARKIÑA'RA.—Batian or eta bestian emen, ba-diardube aberitzaliak batzokijak zabalduten. Datoren igandez beste uri batzuben artian, Markiña'n ixango da zabalkunde jaya. Eta guretzat urien orixe dagola-ta emeko aberitzaliak eurez juango dirala uste dogu. Mendigoxale Sabin'guak beñipein gertauten asita dagoz.

ETA GEYAGORA.—Bata beste eri batzubetara be juan biarko da egun gixi baru. Ispaster'eko Batzokijak be, bere jai eguna eskatzen dauan ezkero jayokan lez ospatutia bidezkua eztanik eztau iñork esango. Ispaster'en bakaldarak ixan dira nagusi aspaldiko urtiotan, asi txaunburutik eta maxurañokuak be olakoxiak dira-ta. Euzko-Batzoki'rik bariz ezta iñoiz egon, eta ofegatik geure laguntza eskiñi biar dautsagube ango aberkide banaka baña zintzuak diranai. Ila onen 19'garenez ixango ei-da edo.

Eta gero, Ea'ko Batzokija'ren eguna be elduko da. Ta ara be juan biarko da orduko eratuko dabezan jayetara. Jairik ederenak euzkel-jayak dirala ezpeye aztu erdel-zale diraneatar batzuk. ¿Aturik zagoze?...

Guenez, ondarutarak be lasterr ospatu gurako dabe euren batzokijaren askundia. Ia zelako arin gertauten daben ba, aurera ta aurera yuan gatezan.

EDERTO.—Santander'en Euzko-Batzokija zabalduteko ain sutsu eta euzkotar jatora lez lanian ibili dan erikide gazte Arinda'ri buakijoz geure txalorik beruenak. Aberijak ordaindeko dautzuz, Josu, eta ekin zuk.

E.

Ecos de Sociedad

VIAJES

Regresaron de su viaje de bodas don Julio de Mendiguren y señora.

—De Madrid, la señorita María Luisa Ozalla.

—De Gazteiz, don Luis Santillán.

—Fué a Valencia don Juan de Ikatza.

—A Bakio, don Pablo Mardones y familia

—A Algorta, don Daniel Oñate y familia.

—A Donostia, don Enrique de Kareaga y don Miguel de Uriarte y señora.

—Regresó de Gazteiz don Francisco de Uribe.

—De Haro, don Segundo de Otxoa.

BODA

En la iglesia parroquial de Arrankudiaga se celebró el matrimonial enlace de la bella señorita Máxima de Ugarritza con el distinguido joven don Andrés de Rotaetxe.

Los contrayentes fueron apadrinados por la hermana de la novia y el hermano del novio.

Zorijonak.

PETICIONES DE MANO

Por los señores de Laespada, y para su hijo Santiago, ha sido pedida la mano de la señorita María Teresa Díez.

—Ha sido pedida la mano de la señorita Pilar Díez por los señores de C. Caballero para su hermano Julio.

Enhorabuena.

ENFERMA

Se halla ligeramente indispuesta la señorita Juanita Iriarte.

NATALICIO

Dió a luz una preciosa niña doña Josefina Osa, esposa de nuestro queridísimo amigo el ejemplar patriota y distinguido ingeniero don Celio de Zuaznabar.

A la neófita le serán impuestos los nombres de Miren Maitena.

Felicitamos sinceramente al venturoso hogar patriota en la fausta fecha de este natalicio.

FIN DE CARRERA

Terminó la carrera de Odontología con brillantes calificaciones la bella y distinguida señorita Antonia de Bilbao y Galartza.

Enhorabuena.

NOTAS TRISTES

Con numeroso y distinguido acompañamiento tuvo lugar a las seis y media de la tarde de ayer, viernes, la conducción del cadáver de la respetable señora doña Petra Audera y Barbot (viuda de don Mariano Balduque y Mendieta), patentizándose en el fúnebre acto el sentimiento causado por su fallecimiento y las simpatías que había sabido granjearse.

La fúnebre ceremonia fué presidida por el hijo de la finada, don Mariano Balduque y Audera; hijo político, don Mario Adorno, y el familiar don Ramón de Aranburu.

Hoy, sábado, a las ocho de la mañana, se celebrarán en la parroquia del Señor Santiago funerales en sufragio del alma de la finada

Reiteramos a su estimada familia la expresión de nuestro más sentido pésame.

—Se verificó ayer la conducción del cadáver de don Eduardo Alayo y Zuazo.

Abrían la marcha los niños de la Santa Casa de Misericordia, siguiendo con hachas blancas 18 amigos de los familiares. llevando las de respeto los señores don Francisco de la Torre, don Emilio Herrán, don Juan Trápaga, don Ramón Villaamil, don Antonio Bandres, don José Luis Fernández, don Guillermo Villaamil, don Luis Castillo, don Manue Lejarreta, don Emilio Padró, don Timoteo Urrengoetxea, don Antonio Olaskoaga, don Tomás Linaza y don Francisco Agiriano.

La primera presidencia la formaban el general Villa Abrille; padre político del finado, don Eufrasio Ortega; hermano, don Vicente Alayo; hermano político, don Juan Ortega, y el presbítero don José González Lasa.

La segunda presidencia, los hermanos políticos, don José Olabarria, don Salustiano Arana, don Evaristo Longarte y don Ramón Muguruza; sobrinos, don Daniel Sarrikolea; don Luis, don Félix y don Pedro Olabarria y el presbítero don Martín Olivares.

Reiteramos nuestro pésame a la atribulada familia.

—Se cumple hoy el tercer aniversario del fallecimiento del distinguido joven don Lorenzo de Urrutia y Galdames. Unimos nuestras oraciones, muy fervorosas, a las innumerables que con este motivo se elevarán a Dios por el descanso eterno del alma del finado.

La Sociedad Coral, por el maestro Ansón

Nuestra veterana Sociedad Coral, como no podía menos de ser, ha organizado para mañana, domingo, una misa de sufragio por el alma de don Benigno Ansón.

Tendrá lugar a las diez de la mañana en la parroquia de San Antón, en la que este músico, modesto y bueno, ejerció el cargo de organista durante muchos años.

Director que fué del brillante Orfeón Euskeria cuando éste se fusionó con la Sociedad Coral, ésta nombró al señor Ansón director honorario, y hoy, al fallecer, quiere tributarle esta ofrenda espiritual al músico que con tenacidad y entusiasmo tanto laboró por la cultura musical de la villa.

No dudamos que el piadoso acto, en el que tomará parte el coro mixto, se verá muy concurrido.